



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko apirilaren 3a

33 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituena. Osoko Bilkurak baztertutako osoko zuzenketak (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituena. Erretiratutako osoko zuzenketa (5. or.).
- Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea. Akats zuzenketa (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta “Pablo Sarasate” Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (17. or.).

C SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- 2001-2004 urteetarako etxebizitza plana (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Narbarten azientzarentzako pasabide bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (21. or.).

—Galdera, kontratuei buruzko Foru Legea betetzeari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egin
(22. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Erabakia, Nafarroako Parlamenturako hiru fotokopiagailu adjudikatzekoa (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa

Apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legeak Nafarroako Nekazaritza Ganbera zuzenbide publikoko korporazio gisa sortu eta arautu zuen, nortasun juridikoarekin eta bere helburuak lortzeko gaitasunarekin. Horrekin batera, haren egitura eta haren funtzionamendua beharrezko printzipio demokratikoetara egokitu zituen.

1998ko abenduan Nafarroako Nekazaritza Ganberarako hauteskundeak egin ziren. 1999ko otsailaren 24an osatu zen Nafarroako Nekazaritza Ganbera.

Nafarroako Nekazaritza Ganbera berrirako lehenbiziko hauteskundeen ondoriozko esperientzia eta hura osatu zenetik iragan den denbora direla eta, komeni da apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea xeheki aldatzea, bi helburu lortzeko.

Lehenengo eta behin, Ganberaren beraren agintaldia luzatzea, lau urtetik bostera. Horrekin erakundearen funtzionamenduak luzeago irautea lortzen da, baita nekazaritza sektoreko hauteskundeak arrazionalizatzea eta hauteskundeetarako gastuak aurrezteak ere, hala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarendako eta Ogasun Publikoarendako, nola nekazaritzako erakundeen-

dako ere. Foru Legearen aldaketa hau bakarrik 2002ko hauteskundeen ondoren osatuko den Ganberari aplikatuko zaio. Gaur egun osaturik dagoenak lau urteko agintaldia bukatuko du.

Bigarren helburua Nafarroako Nekazaritza Ganberaren eta nekazaritzako hauteskundeetarako administrazioaren egintza administratiboen aurkako errekurso arruntaren aipamenak kentzea da, gaur egun ez baitu indarrik. Haren ordeztarra duen gora jotzeko errekurtsua aipatuko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez legeriara berriz egokitua, horrela zuzenbide positiboaren koherentzia bermatzen baita.

Artikulu bakarra. Aldaketa hauek sartzen dira Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legean:

Lehena. 4. artikuluko 1. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“1. Nafarroako Nekazaritza Ganbera zuzenbide administratiboaren menpe dago, eraketa eta antolamenduaren inguruko orotan eta, zuzenbide publikoko korporazioa den aldetik, ematen dituen erabaki eta egintza administratiboen ingurukotan. Erabaki eta egintza horien aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko da, Nafarroako Gobernua-ri zuzendua, aplikatu beharreko administrazio prozeduraren arauetara jarraituz.”

Bigarrena. 10. artikuluko 1. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“1. Osoko Bilkura Ganberaren organo gorena da. Hamazazpi kide izanen ditu, sufragio ireki, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez aukeratu beharrekoak, bost urterako, lanbide-ordezkaritzako irizpideen arabera hautatuak. Kide guztiak hauteskunde prozesu berean hautatuko dira, Nafarroa osoa hartuko duen hauteskunde barruti bakarrean.”

Hirugarrena. 10. artikuluko 3. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“3. Osoko Bilkura eratuko da hauteskunde prozesua amaitu eta hogeita hamar eguneko epearean barruan eta agintaldia bost urtekoa izanen da.”

Laugarrena. 11. artikuluko 1. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“1. Ganberako Osoko Bilkurak hautatuko du lehendakaria, bertako kideen artean, eraketa bilkuran. Kargualdia bost urtekoa izanen da, osoko bilkuraren kargualdiarekin bat, 10. artikuluko 2. zenbakiko b) idatz-zatian xedatutakoa galarazi gabe.”

Bosgarrena. 23. artikuluko 2. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“2. Errolda bost urtetik behin berritu beharko da, gutxienez, Nafarroako Nekazaritza Ganberako hauteskunde prozesuarekin bat etorriz.”

Seigarrena. 23. artikuluko 4. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“4. Erroldan sartu edo bertatik baztertzeko erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, baina, jarrita ere, ez da etengo hauteskunde prozesua.”

Zazpigarrena. 26. artikuluko 1. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“Nekazaritzako Hauteskunde batzordeko kideen erdiak bost urtetik berrituko dira”.

Zortzigarrena. 26. artikuluko 3. idatz-zatiak idazketa hau izanen du:

“3. Nekazaritzako Hauteskunde Batzordearen erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, administrazio prozedurari buruzko arauetara jarraituz.”

Bederatzigarrena. 30. artikuluko idazketa hau izanen du:

“30. artikulua. Zuzenbide-arau osagarriak.

Kapitulu honetan zehaztu gabe gelditu diren hauteskunde prozesuaren inguruko guztietan, zehazki, boto eskubideaz, boto-kontaktaz, emaitzen aldarrikapenaz eta postuak emateaz sortzen direnetan eta, orohar, hauteskunde prozesuan zuzenean nahiz zeharka eragina duten afera guztietan, Hauteskundeetarako Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa osatzen duten orotariko printzipioak hartuko dira kontuan”.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra. Hala ere, bost urteko agintaldiari buruzko xedapenak foru lege honek indarra hartzen duenetik egiten diren lehenbiziko hauteskundeon ondoren osatzen den Nafarroako Nekazaritza Ganberari aplikatuko zaizkio.

Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eta Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordera bidali da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen

ERRETIRATUTAKO OSOKO ZUZENKETA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proiektuari osoko zuzenketa aurkeztu zion: "Foru Lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituena".

2002ko martxoaren 21ean egindako bileran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkezturiko osoko zuzenketa erretiratu duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuten Biltzarreko Osoko Bilkurak.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea

AKATS ZUZENKETA

2002ko martxoaren 8ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 200ko martxoaren 15eko 33. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legean akats bat dagoela oharturik, ondotik zuzentzen da, foru lege horren akats zuzenketa argitaratuz.

Lehen xedapen iragankorrean, abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 127. artikulua dioen tokian, abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legearen 17. artikulua esan behar du.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an.

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta “Pablo Sarasate” Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: “Foru Legea, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa”.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, LOGSEk jasotako goi mailako musika ikasketak jartzeari buruzkoa eta “Pablo Sarasate” Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorre-rako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE) dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuko ikasketak sakontasunez arautzen ditu hezkuntza-sistemaren erreformaren barrenean lehen aldiz. Gizartean horiekiko dagoen interes gero eta handiagoari (horien eskaerak izan duen gorakada guztiz nabarmena da interes horren agerrikerik argiena) erantzuten dio. Zenbait arrazoi direla-eta, komenigarria da horiek sistemaren egitura orokorarekin lotura izatea eta, aldi berean, behar den malgutasun eta berariazkotasunaz antola daitezela, euren berezitasunei aurre egin eta maila profesional ezberdinak eskaini ahal izateko, baita unibertsitate-titulazioen baliokideak direnak ere (lizentziatu tituluaren baliokide izanzen dira musikaren eta arte eszenikoen arloei dago-kienez, non dantza eta arte dramatikoa sarturik baitaude).

LOGSEko 38. artikulua ezartzen duenez, “ikasketa artistikoen helburua izanen da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta etorkizunean musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuaren esparruetako profesiona-lak izanzen direnen trebakuntza bermatzea”.

Horrela, aipaturiko legeko 39. artikulua hauxe esaten du:

“1. Musika- eta dantza-ikasketak hiru mailatan antolatuta egonen dira:

a) Oinarrizko maila, zeinak lau urte iraunen baitu.

b) Erdiko maila, zeina hiru ziklotan zatituta egonen baita. Ziklo horietako bakoitzak bi ikastur-te iraunen du.

c) Goiko maila, zeina ziklo bakarrez osatuta egonen baita. Ziklo horren iraupena ikasketa horien ezaugarrien arabera zehaztuko da.

2. Salbuespen gisa, ikasleak ikasturte bat baino gehiagotan matrikulatu ahalko dira, irakas-leek horri buruzko aholkua eman ondoren eta haiek daukaten ikasteko gaitasunak horretarako aukera ematen duenean.

3. Araubide bereziko musika- eta dantza-ikas-ketetan irakasle aritzeko beharrezkoa izanzen da lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edo irakaskuntza-eginkizunetarako baliokide den titulazio bat edukitzea eta zehaztuko diren pedagogia-gaiei buruzko ikasketak egin izana.

4. Ikasketa horietako curriculuma ezartzeko, lege honetako 4. artikulua xedaturikoari jarraitu-ko zaio.

5. Aurreko idatz-zatietan xedaturikotik at, musi-ka- edo dantza-ikasketak egin ahalko dira bera-riazko ikastetxeetan, inolako adin-mugarik gabe. Ikasketa horien bidez ezin izanzen da inola ere

lortu balio akademiko eta profesionala duen titulurik, eta haien antolamendua eta egitura aipaturiko idatz-zatietan ezarritakoaz bestelakoa izanen da. Ikastetxe horiek erregelamendu bidez arautuko dituzte hezkuntza administrazioek”.

Bestalde, LOGSEko 40. artikulua haxe ezartzen du:

“1. Musika- eta dantza-ikasketen oinarrizko mailari dagokionez, Hezkuntza Administrazioek sarrera-irizpideak ezarri ahalko dituzte, eta, horretarako, kontuan hartuko dute, besteak beste, ikasketa horietarako adinik egokiena zein den.

2. Musika- eta dantza-ikasketen erdiko mailara iritsi ahal izateko berariazko sarrera-proba bat gainditu beharko da. Bestalde, ikasturte bakoitzera aurrekoak gainditu gabe iritsi ahal izanen da, baldin eta, proba baten bitartez, interesdunak erakusten badu kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatzeko behar diren ezagutzak dauzkala.

3. Musika- eta dantza-ikasketen goiko mailara iristeko ahalko da baldin eta honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Batxilergo-titulua edukitzea.

b) Erdiko mailako hirugarren zikloko ikasketak gainditzea.

c) Gobernuak ezartzen duen berariazko sarrera-proba gainditzea. Horretan, interesdunak kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatuz egiteko beharrezkoak diren ezagutzak eta lanbide-trebetasunak dituela erakutsi beharko du.

4. Aurreko idatz-zatian xedatua gorabehera, ezarritako baldintza akademikoak bete gabe ikasketa horien goiko mailara iritea posible izanen da, baldin eta interesdunak erakusten badu bai erdiko mailari dagozkion ezagutza eta gaitasunak bai kasuan kasuko ikasketak ongi aprobetxatuz egiteko beharrezkoak diren berariazko trebetasunak dauzkala”.

Azkenik, 42. artikulua haxe ezartzen du:

“1. Oinarrizko maila amaitzean, horren ziurtagiria luzatuko da.

2. Musika edo dantzako erdiko mailaren hirugarren zikloa gainditzeak kasuan kasuko ikasketari dagokion lanbide-titulua lortzeko eskubidea emanen du.

3. Ikasketa horien goiko maila gainditu dutenek eskubidea izanen dute kasuan kasuko espezialitateko goi mailako titulua lortzeko. Titulu hori unibertsitate-lizentziatuaren baliokidea izanen da, ondorio guztietarako.

4. Hezkuntza administrazioek unibertsitateekin hitzarmenak sina daitezten sustatuko dute, aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen goi mailako tituludunentzat hirugarren zikloko ikasketak antolatzea errazteko”.

Hezkuntza sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 14ko 986/1991 Errege Dekretuko 28. artikulua xedatzen duenez –errege dekretu hori apirilaren 12ko 535/1993, uztailaren 1eko 1487/1994, otsailaren 16ko 173/1998, irailaren 19ko 1468/1997 eta ekainaren 25eko 1112/1999 errege dekretuen bidez aldatu zen–, “2000-2001 ikasturtetik aitzina hasiko dira hezkuntza administrazioak oro har ezartzen egoki jotzen dituzten antolamendu berriko goi mailako ikasketak.

Apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretuak irakaskuntza artistikoetako ikastetxeetan irakasle- eta ikasle-kopuruen artean egon behar diren proportzioak eta espazio eta instalazioei dagokienez bete behar diren gutxienekoak ezartzen ditu.

16. artikuluan, berriz, goi mailako musika eskolek gutxienez ere eman beharreko espezialitateak ezartzen dira.

Azkenik, Goi mailako musika ikasketen curriculumeko oinarrizko puntuak eta ikasketa horietan sartzeko hauta-probak arautzen dituen apirilaren 21eko 617/1995 Errege Dekretuak ezartzen duenez, ikasketa horietako espezialitateak eta hezkuntza administrazioen curriculumak garatzeko oinarriak ezartzen ditu.

Ikusita kasuko argumentu eta lege esparruak, bidezko da azpiegitura egokiak garatzen lagunduko duten arauak ematea.

Irakaskuntza artistikoetako ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen dituen apirilaren 15eko 389/1992 Errege Dekretua sakonki aztertuz ondorioztatzen da lanbide kontserbatorioek (erdiko maila irakasten dute) eta goi mailakoek egiazki ikastetxe ezberdinak beharko dutela izan.

Gaur egun, Nafarroak iraungitzear dagoen 1966ko ikasketa-planaren arabera goiko maila dauka musika-ikasketetan. 2000-2001 ikasturtean erdiko mailan matrikulaturiko 341 ikasle izan dira Nafarroan. Goiko mailarako ikasle batzuk gradu hori ez daukaten probintzia mugakideetakoak dira: Errioxa, Soria, Huescakoak. Ez deritzogu ez logikoa ezta komenigarria ere Nafarroak maila hori galtzeari; izan ere, maila hori musika-ikasketen gailurra da, eta ondorio guztietarako unibertsitate-titulazioaren baliokidea den titulua ematen du.

1942 eta 1966ko musika-planen bitartez egin bezala, Nafarroak tradizioari eutsi eta maila goreneko musika-ikasketak eskaintzen segitu beharko du; hori, gainera, bultzatzaile eta akuilu izanen da lanbide-kontserbatorioetan edo musika-eskoletan eskaintzen diren behe-mailetako musika-hezkuntzako ikasketetarako eta Nafarroako bizitza kulturalerako.

Ikasleek euren erkidegoan bertan amaitu ahalko dituzte musika-ikasketak, eta, horrela, goi mailako musika-titulua lortu ahal dute, unibertsitate-lizentziaturaren mailakoa. Horrez gain, hirugarren zikloko ikasketak ere egin ahal ditzate Unibertsitatean.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak Musikako goiko maila ezarriko du Nafarroan 2002-2003 ikasturtean, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Legeak xedatuari jarraikiz.

2. artikulua. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa sortu da, Nafarroako Gobernuaren mende, "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa izenarekin.

3. artikulua. "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak helburu nagusi du pedagogia, konposizio, interpretazio eta ikerkuntza arloetako musikari profesional adituak prestatzea, musika klasikoaren, usadiozkoaren eta modernoaren alorretan euren lanbidea garatuko dutenak, prestakuntza teknologiko, teoriko eta humanistiko handiarekin.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, Musikako Goi Mailako musika ikasketen curriculum auzarri eta haietan sartzeko probak arautuko ditu, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 4. artikuluan xedatuarekin bat.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren erregelamendu organikoa garatuko du –goi mailako ikasketa izaerari egokitua eta

berezitasunei aurre egiteko beharrezkoak diren malgutasun eta espezifikotasuna ahalbidetuko duena–, ikastetxe horri antolamendu-esparru bat ematearren.

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, musika eskoletan musika ikasketa arautuak egiteko probak prestatzeko programak ezartzen laguntzeko sistema berariazkoa ezarriko du, eta ezarpen-maila baxuko orkestra espezialitateei laguntzeko politikak sustatuko ditu.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bitartez, lankidetzaren hitzarmenak sustatuko ditu "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eta talde-jarduerekin lotutako goi mailako musika ikasketei buruzko programak garatzeko gaitasun artistiko eta antolamenduzko nahikoa duten tokiko musika-erakundearen artean.

Xedapen iragankorak

Lehena. Nafarroako Gobernuak 2002an hasiko ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eraikina eta eskola-eremuko ekipamendu, egokimendu eta azpiegitura obrak hasteko tramiteak.

Bigarrena. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak "Pablo Sarasate" Kontserbatorioarekin erdibanatu ahal izanen du horren egoitza, bi kontserbatorioen egoitza berriak eraikitzen diren bitartean.

Hirugarrena. Zuzendaritza talde berak zuzendu ahal izanen ditu Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa, egoitza berean dauden bitartean.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bigaramunean.

Foru Lege proposamena, Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2001eko irailaren 17ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

8. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

3. 5.000 biztanle baino gehiagoko udaletan eta gutxiagokoetan ere –baldin eta haien Erregelamendu Organikoak hala xedatzen badu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu–, honako eginkizun hauek izanen dituzten organoak izanen dira: osoko bilkuran erabaki beharrekoak diren gaiei buruzko azterlan eta txostenak egin edo kontsulta eskaintzea, eta alkatearen, gobernu batzordearen eta delegaturiko eginkizunak dauzkaten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea. Hori guztia, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenak galarazi gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea izanen dute, Estatuko legediak ezarritako bermeek babesturik.

Zioak: Justifikaziorik gabeko aldea eragiten du Nafarroako udalen eta araubide komuneko artean –Toki araubideari buruzko oinarrien legeko 20.1 artikuluko c) letra–, herritarren kopuru ezberdinak ezartzen baitira organo horiek eratzeko, horretarako arrazoirik ez egon arren. Eta erregelamendu organiko bidez soilik eratzeko mugari buruz, osoko bilkurak hala erabakita eratzeara kentzen da, eta muga hori ezinen da justifikatu inongo argumentu juridikotan oinarrituta.

2. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

3. 1.000 biztanle baino gehiagoko udaletan eta gutxiagokoetan ere –baldin eta haien Erregelamendu Organikoak hala xedatzen badu–, honako eginkizun hauek izanen dituzten organoak izanen dira: osoko bilkuran erabaki beharrekoak diren gaiei buruzko azterlan eta txostenak egin edo kontsulta eskaintzea, eta alkatearen, gobernu batzordearen eta delegaturiko eginkizunak dauzkaten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea. Hori guztia, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenak galarazi gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea izanen dute, Estatuko legediak ezarritako bermeek babesturik.

Zioak: Nafarroako udalen tamaina kontuan hartuta, korporaziokideen parte-hartzearen gardentasuna eta hobekuntza, batzordeen existentzia denaz bezainbatean, ezin da mugatu 2.000 biztanletik gorako udalei.

45. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Pentsatu beharko dugu proposamena 1. artikuluko indardunari buruzkoa dela –ez beste ezeri buruzkoa–, eta horren testua aldatu gabe, bigarren lerrokada bat gehitzen duela.

Ez da koherentea, alde batetik, tradiziozko batasunen antolamendu, funtzionamendu, esku-men eta diru baliabideak lege ezarritak dituzten erregelamendu, ordenantza, koto, paramento, hitzarmen, akordio, sententzia edo itunen bidez arautuko direla esatea eta, beste alde batetik, gobernu organoak hautatzeko sistema espresuki ezarri nahi izatea eta, hartara, entitate horiek beren antolamendua erabakitzeko ahalmena mugatzea.

Nabarmendu beharra dago, halaber, foru lege proposamenak hori aditzera eman arren, hauteskunde-arautegiaren arabera ez dagoela prozedura bakar bat toki entitateetako kideak hautatzeko, ezpada ere hiru hauteskunde-sistema. Hauteskunde araubide orokorrari buruzko lege organikoak, populazioaren arabera edo kontzeju irekiaren araubidea aplikatzen den, ondokoak ezartzen ditu:

– Kontzeju irekiaren araubideari jarraikiz funtzionatzen duten udalak: alkatea zuzenean hautatzea, gehiengo bidez.

– 100 eta 250 biztanle bitarteko udalak: gehiengo bidezko sistema. Zinegotziek gehiengo osoaren bidez hautatzen dute alkatea, edo bestela, herritarren botoen gehiengoaren bidez.

– 250 biztanletik gorako udalak: sistema proportzionala. Zinegotziek gehiengo osoaren bidez hautatzen dute alkatea, edo bestela, boto gehien lortu duen zerrendaburua.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

45. artikuluari 5. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

5. Gobernu organoak ondoko arauari lotuko zaizkie:

a) Biltzar Nagusia izanen dute, udaletako zein kasuan kasuko erakundeetako ordezkariak osatua.

b) Organo betearazle nahiz txosten-egileak biltzarreko kideen artean hautatuko dira, aurkeztutako hautagai-zerrenden ordezkariak proportzionala bermatzen duen prozedura bati jarraikiz.

Zioak: Ez dago zertan aldatu 45. artikulua egungo testuko lau idatz-zatiak, Toki araubideari buruzko oinarrien legeko 4. artikulua xedatuari jarraitzen baitio haren testuak, eta hori ez da aldatu. Egoki da, ordea, idatz-zati bat gehitzea, tradiziozko batasunen organoak arautzeko, ordezkari-sistema demokratikoa bermatzearen proposamenak egiten duen bezala. Helburua bera bada ere, arau-teknika hobetzen duen beste testu bat eman dugu.

76. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 1. idatz-zati aldatzeko zuzenketa

1. Toki erakundeetako kide hautetsiek beren esku izanen dituzte erakunde horietan dauden dokumentu eta artxibo guztiak.

Zioak: Idatz-zatiko gainerako zatiak –“eta haien eginkizuna betetzeko beharrezkoak direnak”– elementu subjektibo bat sartzen du, batera zein bestera interpretatzea ekar dezakeena, eta artikuluko horren bidez bermatu nahi den informazioa eskuratzeko trabak jarri.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

76. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa

Eskaera arrazoiak azalduz ebatzi beharko du alkateak edo udalburuak edo gobernu batzordeak, Udaleko erregistroan argitaratu eta bost egun naturaleko epean.

Zioak: Zehaztu egin behar da zer organori dagokion betebeharrak hori baliatzea, hori egin ezean ez baliatzeke posible izanen ez-betetzearen erantzukizuna nori dagokion ezartzea, eta gainera, era horretara Toki araubideari buruzko oinarrien Legeko 77. artikulua xedatuari egokitzen zaio.

77. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

77. artikuluko 3. idatz-zatiko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Gure ustez, ez da egokia gai-zerrendako gaien eskatzaileak kontrolatzea beste gairik ere sar daitekeen, horrela indargabetu egiten baita alkateak gai-zerrendaren edukiaren gainean duen ahalmena.

8. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

77.1 artikulua aldatzeko zuzenketa

77. artikulua

1. Osoko bilkura arrunta gutxienez ere hilabetean behin eginen da 5.000 biztanle baino gehiagoko udaletan; bi hilabetean behin 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

Zioak: Udal ordezkartzako organo gorenak izan beharreko protagonismoa izan dezan eta bestelako organoek haren tokia har ez dezaten, bileren aldizkakotasuna ezin daiteke horrenbeste luzatu.

9. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

77.1 artikulua aldatzeko zuzenketa

1. Osoko bilkura arrunta gutxienez ere hilabetean behin eginen da 20.000 biztanle baino gehiagoko udaletan; bi hilabetean behin 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udaletan, eta hiru hilabetean behin 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

Zioak: Ez dago justifikazio ez juridiko ez praktikorik kontzeptu-bereiztasun hori ezartzeko Nafarroako eta Estatuko gainontzeko udalen antolamenduan. Horrenbestez, zuzenbideari lotuena izanen da Toki araubideari buruzko oinarrien legeko 46.2.a) artikulua xedatuari oro har egokitzea udalen antolamendua.

10. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

77. artikuluko 3. idatz-zatiko 3. lerrokada aldatzeko zuzenketa

Aipaturiko zinegotzi-kopuruak eskaturiko ohiz kanpoko osoko bilkurarako deirik Udaltzako buruak ez badu adierazi den epean egiten, hartarako deia automatikoki egina geldituko da epe hori bukatu eta hamargarren egun balioduneko hamabietarako.

Zioak: Deia automatikoki hamargarren egun baliodunean egiteko arrazoia da gehieneko epea berbera izatea bilkurak korporaziokideek eskatuta

egiten badira, udalburuak deituta egiten badira eta deia haren ez-egitearen ondoriozkoa bada.

Foru lege proposamenaren arabera, korporaziokideek eskatuta udalburuak deitutako bilkurak automatikoki deitutakoak baino bost egun baliodun beranduago egiten ahalko dira.

**78. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA****11. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

78. artikuluko 2. idatz-zatiko 2. lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Testuan esaten ez bada ere, osoko bilkuretako gai-zerrendan sartutako gaietarako buruzko dokumentazioaz ari da, eta proposatzen da hartan sartzea alkatearen eta gobernu batzordearen ebazpenak, eta ustez, alkatearen nahiz zinegotzi eskuordetuen ebazpenak eta gobernu batzordearen erabakiak esan nahi da.

Proposatzen denari buruz, esan beharra dago arestian aipatutako ebazpen eta erabakien berri eman behar zaiola osoko bilkurari, baina, logikoa den bezala, ez dira inolaz ere osoko bilkuretan eztabaidatu eta bozkatuko. Toki administrazioari buruzko foru legeko 76. artikulua, berriz, udaltzaren esku dauden dokumentu eta artxibo guztiak eskuratzeko eskubidea ezartzen du.

**80. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA****12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

80. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

80. artikulua

2. Udalek erregelamendu bidez arautu ahalko dute biztanleek informazio batzordeetan eta osoko bilkuran parte hartzea, bai eta udal ordenantzen onespenean herritarren ekimena ere.

Zioak: Proposamenaren 93. artikuluari gehitzeko zuzenketa gisa azaltzen dena jasotzea, testua

zertxobait hobetuz, ez dakion 80.2 artikulua xedatutakoari kontrajarri.

93. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

13. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Edukiarekin bat etorri arren, argi eta garbi kontrajarri dakioko 80.2 artikulua xedatutakoari. Hori dela eta, hobe da 93. artikulua aldatu beharrean 80. artikulua aldatzea, beste zuzenketa batean proposatzen den legez.

14. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

93. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Antza denez, bi lerrokadako 3. idatz-zati bat gehitu nahi zaio artikuluari.

Lehen lerrokadari buruz nabarmendu beharra dago indarrean dagoen TAFLko 92.2 artikulua espresuki jasotzen duela tokiko korporazioek, antolatzeke duten ahalmena baliatuta, herritarrek parte hartzeko era, bitarteko eta prozedurak ezar ditzaketela, baldin eta ordezkari organoen erabaki ahalmena indargabetzen ez badute. Horrenbestez, proposamenak ez dakar ezer berririk.

Bigarren lerrokadari buruz –“bizilagunen legegintzako ekimena” dei genezakeenari buruzkoa baita–, alde batetik, askoz ere zehatzago arautu beharko litzateke TAFLn bertan zein prozedura, baldintza eta arlo aplikatu ahal izanen zen, herritarren legegintzako ekimenarekin egiten denaren antzera, eta beste alde batetik, TAFLko 325. artikuluan ordenantzen onespenera buruz arautzen dena errepikatzea litzateke.

15. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

93. artikulua aldatzeko zuzenketa

Udalek bai erregelamendu bidez bai osoko bilkurak harturiko erabaki baten bidez arautuko dute

biztanleek informazio batzordeetan eta osoko bilkuran parte hartzea.

Biztanleek ordenantzak onets daitezzen sustatu ahalgo dute.

Zioak: Bermatu egin behar da biztanleek osoko bilkura eta batzordeetan parte hartzea.

94. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

16. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

94. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

94. artikulua

2. Horrezaz gain, toki kudeaketari buruzko informazio orokorreko aldizkari bat argitaratu eta izaera grafikoko edo ikus-entzunezko bestelako baliabideak erabili ahalgo dituzte berriazko legeriarekin bat. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalek nahitaez argitaratuko dute informazio orokorreko aldizkaria, hiru hilabete behin gutxienez ere, eta hartan sartu beharko dituzte hartutako erabaki eta ebazpenen laburpena nahiz udalaren zerbitzu eta organoen direktorioa, biztanleen interesekoak izan daitezkeela iritzitako bestelako edozein informazioarekin batera.

Zioak: Estatu mailako arauetan –Tokiko korporazioen antolamendu edo funtzionamenduari buruzko erregelamendua– probintzia hiriburuetarako eta 50.000 biztanle baino gehiagoko udalengan nahitaezkoa den informazio orokorreko aldizkariaren figura sartzeari, udalaren jarduerari buruz biztanleek duten informazioa hobetzearren.

107. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

17. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

107. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki araubideari buruzko oinarrien legeak ekarri zuen aldaketa sartzeari proposamenak; horren arabera, korporazioko lehendakariak

kontratazioetarako duen ahalmena baliabide arrunten % 5etik 10era pasatzen da. Horrek osoko bilkuraren ahalmenak eta lehendakariaren gaineko kontrola murriztea dakar. Ezin da eskatu Toki administrazioari buruzko foru legean aldaketa hori sartzeko, zeren, kontratuen alorrekoa izaki, Nafarroak baitu eskumen osoa. Hobe da legea bere horretan uztea.

18. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

107. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Alkatearen eskumen zuzena aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bostetik hamarrera igotzea osoko bilkuraren eskumeneren kalterako da, eta presidentzialismo alferreko eta kaltegarria eragiten du.

130. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

19. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

130. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki araubideari buruzko oinarrien legeak ekarri zuen aldaketa sartzen du proposamenak; horren arabera, korporazioko lehendakariak emakidetarako duen ahalmena baliabide arrunten % 1etik 10era pasatzen da. Horrek osoko bilkuraren ahalmenak eta lehendakariaren gaineko kontrola murriztea dakar. Ezin da eskatu Toki administrazioari buruzko foru legean aldaketa hori sartzeko, zeren, ondasunen alorrekoa izaki, Nafarroak baitu eskumen osoa. Hobe da lege bere horretan uztea.

20. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

130. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra kentzeko zuzenketa

Zioak: Korporazioko lehendakariaren eskumenak igotzea osoko bilkuraren eskumeneren kalterako da.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

130. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra kentzeko zuzenketa

b) Ondasun pribatuen kostu bidezko erabilera egitean, epea bost urtekoa baino luzeagoa ez bada eta zenbatekoak lehen aurrekontualdiko aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen ez badu.

Zioak: Alkateak kontratatze duen ahalmenari buruzko beste zuzenketei egokitzea.

132. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

132. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki araubideari buruzko oinarrien legeak ekarri zuen aldaketa sartzen du proposamenak; horren arabera, ondasunak besterentzean gehiengo osoa eskatzeko muga % 10etik % 20ra pasatzen da, eta korporazioko lehendakariaren ahalmena baliabide arrunten % 5etik 10era. Horrek kontrola murriztea dakar. Ezin da eskatu Toki administrazioari buruzko foru legean aldaketa hori sartzeko, zeren, ondasunen alorrekoa izaki, Nafarroak baitu eskumen osoa. Hobe da lege bere horretan uztea.

23. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

132. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Alkatearen eskumen zuzena aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamarretik hogeira igotzea osoko bilkuraren eskumeneren kalterako da, eta presidentzialismo alferreko eta kaltegarria eragiten du.

24. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

132. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

2. Besterentzea egiteko, toki erakundeko osoko bilkuraren edo gobernu- eta administrazio-organo gorenaren erabakia behar da. Besterentzekoa den ondasunaren zenbatekoak aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko hogeai gainditzen badu, erabakia udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuz hartuko da. Hala ere, udalbatzako buruak toki erakundearen helburuak betetzeko beharrezkoak ez diren ondasun higigarri eta higiezinak besterendu ditzake, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen ez badu.

Zioak: Alkateak kontratatzeko duen ahalmenari buruzko beste zuzenketei egokitzea.

**226. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK****25. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

226. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki araubideari buruzko oinarrien legeak ekarri zuen aldaketa sartzan du proposamenak; horren arabera, korporazioko lehendakariaren ahalmena baliabide arrunten % 5etik 10era pasatzen da, eta gainera, kendu egiten da Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zuzenean kontratatzeko ezarritako muga orokorraren % 50aren adinako muga. Horrek kontrola murriztea dakar. Ezin da eskatu Toki administrazioari buruzko Foru Legean aldaketa hori sartzeko, zeren, kontratazioen alorrekoa izaki, Nafarroak baitu eskumen osoa. Hobe da legea bere horretan uztea.

26. ZUZENKETA**BATASUNA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

226. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Alkatearen eskumen zuzena aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko hamarretik

hogeira igotzea osoko bilkuraren eskumenen kalterako da, eta presidentzialismo alferreko eta kaltegarria eragiten du.

27. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

226. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketa

a) Batzako buruak, baldin eta zenbatekoak ez badu aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen, eta, zenbatekoa aipaturikoa baino handiagoa denean, urtebetekoa baino iraupen luzeagokoak ez izanik urteko aurrekontuan kontsignaturikoa baino kreditu handiagoak beharrezkoak ez dituztenak. Halaber, urte bat baino gehiagorako kontratazioak haren eskumen izanen dira haien iraupena lau urte baino luzeagoa ez denean, baldin eta urte bakoitzean ordaindu beharreko kopuruaren batura ez bada aipaturiko ehuneko baino handiagoa. Ehuneko hori lehen aurrekontualdiko aurrekontuaren baliabide arrunten gainean hartu behar da.

Zioak: Gure ustez, komenigarriagoa da alkateak kontratatzeko egun ahalmena ezartzen duen ehuneko bere horretan uztea.

**237. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA****28. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko 237. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

237. artikulua

3. Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua arduratuko da toki entitateetako funtzionarioen prestakuntzaz. Dena den, toki entitateek eta haien menpeko elkarteek prestakuntza jarduerak batera egiteko hitzarmenak sinatu ahalko dituzte erakunde horrekin.

Zioak: Prestakuntza alorrean eskuduna den erakundearen aipamena gaurkotzea, eta,aldi berean, jarduera horretan toki entitateen parte-hartze eta elkarlana sustatzea.

325. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

29. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

235. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. idatz-zatiko c) letrako bigarren lerrokadan, gaztelaniazko testuan "definido" esaten duen tokian "definitivo" jartzea.

Zioak: Zuzenketa teknikoa.

343. ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

30. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

343. artikulua kentzeko zuzenketa

Zioak: Toki araubideari buruzko oinarrien Legeko 65 eta 66. artikuluetan xedatuari egokitzen zaio, baina bazter uzten du foru erkidegoaren eskumenak gutxitu, haren jarduna oztopatu edo toki entitateen eskumenak gainditzen dituzten egintzak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan zuzenean inpu gnatzeko aukera.

Kontuan izanik egintza horiek ez direla 341. artikuluan proposatutakoan ere jasotzen, foru lege proposamenari jarraituz gero egintza horiek ezin izanen lirateke ez baliogabetzeko eskatu ez zuzenean inpu gnatu aipatu jurisdikzioan.

31. ZUZENKETA**BATASUNA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

343. artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

2. Inpu gnazioak kaltea zein izan den zehaztu beharko du edo, bestela, inpu gnaziorako zio eman duen eskumenean gainditzea eta bere oinarria diren legezko arauak aipatu. Horretaz gain, inpu gnaturiko egintza edo erabakia bertan behera uzteko eskari espresua izan beharko du, ukituriko komunitatearen interesaren osotasun eta eragin-kortasunaren izenean. Eskaria onartuz gero, legeria orokorrean ezarrita dauden ondorioak eraginen ditu. Bertan behera uzteko erabakia hartutakoan,

epaimahaiak altxatzen ahal du edozein momentutan, osorik edo zati bat, entitate lokalaren eskariz eta Foru Komunitateko Administrazioari entzunez, baldin eta haren ondorioz inpu gnazioan aipatzen den komunitatearen interesak justifikatzen ez duen interes lokalarendako kalterik eratoritzen ez bada.

Zioak: Inpu gnaziorik aurkezten bada, komeni da testu indardunaren zehaztasunari eustea.

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra gehitzeko zuzenketa. Artikulu horretan sartuko lirateke proposameneko artikulu guztiak, eta hasieran ondoko testua jarriko da:

Artikulu bakarra.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 8, 45, 76, 77, 78, 80, 83, 319, 325, 333, 341, 342, 343 eta 345 artikulua aldatu dira. Honela gelditu dira:

Zioak: Legegintzako teknika hobetzea.

AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

33. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bi azken xedapen gehitzea.

Azken xedapenak.

Lehena. Baliorik gabe gelditu da Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorra, bai eta foru lege honean xedatuari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko gainerako xedapen guztiak ere.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Zioak: Legegintzako teknika hobetzea.

Hirugarren xedapen iragankorra baliogabetzearen helburua da hamabi urtetik hona indarrean dagoen tresna maltzurra baliorik gabe uztea. Horren arabera, "46.3 artikulua aipatzen dituen Batasunen eraketaren ondorioz idazkari eta

kontu-hartzaile lanpostuetan egin behar den behin betiko berregituraketa” –sekula egin ez dena– egin arte horiei buruzko arauak ez aplikatzeak ekarri du toki entitateak betirako sistema behin-behinekoan bizi izan direla halaberrez, eta ezin izan dituztela behin betikoz bete lanpostu horiek. Ondorioz, lanpostu horietan daudenak behin-behinekotasun betierekora kondenatuta daude. Asmoa da Nafarroako toki administrazioari buruzko foru legeak ezarri zituen tresnak abian jartzea, toki entitateen funtzionamendu egokirako erabakigarriak diren lanpostu horiek tokiko funtzio publikoan hobetzearen, arduradunek behin eta berriro eskatu baitute hori.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETA**

34. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko azken lerrokada kentzeko zuzenketa

Zioak: Legegintzako teknika hobetzeko, lerrokada horretako testua proposameneko artikulua bakarria izan beharko litzateke.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2001eko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa

“Artikulu bakarra

1. Aldatu eginen da 4. artikuluko 2. idatz-zatikoa c) letra; hona testua:

“c) Goi karguak jarduerak edo/eta ondareko ondasunak ez aitortzea Erregistroan, ohartarazpena jaso ondotik”.

2. 14. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu eginen da; hona testua:

“Arau-hauste arintzat joko dira:

a) Goi karguak jarduerak edo/eta ondareko ondasunak ez aitortzea Erregistroan, ezarritako epeen barrenean, datuak zuzentzeko eskatu eta aitortzen direnean.

b) Sozietate publikoek foru lege honetako bigarren xedapen gehigarrian ezarritako obligazioak ez betetzea”.

Zioak: Argi eta garbi bereizi nahi dira goi karguen arau-hauste pertsonalak eta sozietate publikoen komunikazio-falta edo komunikatzeko atzerapena, eta ex novo tipifikatu nahi da, arau-hauste arin gisa, sozietate publiko horien komunikazio eza.

2. ZUZENKETA

JOSÉ MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeko 5.1.b) artikulua kentzeko zuzenketa.

5. artikulua. Sari ekonomiko bateragarriak kargu publiko gisa.

1. Kargu publiko gisa goi karguan aritzearekin bateragarri diren jarduerak galarazi gabe, ez du karguaren lansariaz aparte beste sari ekonomikorik jasoko, honako hauek salbu:

a) Egin behar dituen bidaia, egonaldi eta lekualdatzeen gastuen kalte-ordaina, indarra duen araudiari jarraituz.

b) Zein Administrazio Publikotatik datorren haren legeriak onartzen dizkion ordainsari bateragarriak, goi karguak eszedentzia berezian edo zerbitzu berezietan diren funtzionarioak direnean.

2. Edozein kontzepturen bidez jaso behar ez diren zenbatekoak sortuz gero, aurreko zenbakian adierazitakoari jarraituz, dagokien kontuan sartuko ditu zuzenean ordaintzen dituen erakundeak, eta hori ezinezkoa bada, hartzaileak berak, jaso eta hamabost eguneko epean.

Zioak: Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legeko zioen azalpenean jasotzen denez, sektore publikoaren funtzionamendu zorrotz eta objektiboa bermatu beharra dago.

Praktikan, lege horren aplikazioak erakutsi du goi kargu eta Gobernuko kide gehienak ordainsariak jasotzen ari direla administrazio kontseiluetera joateagatik; horrek ez dirudi bateragarria denik independentzia instituzionalari eustearekin; are gehiago, kontuan izanda sozietate horietako batzuetan foru instituzioek ez dutela partaidetzaren gehiengoa.

Gure ustez, Nafarroako Gobernuko kideek eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko goi karguek ordainsari bakarra jaso behar dute,

karguari dagozkion eginkizun guztien ordain izanen dena; kargua dela-eta administrazio kontseilu bateko partaide izan eta hara joateagatik sariak jasotzea ekidin egin behar da. Dirusarrera horiek zuzenean pasa beharko lukete diru publikoen kutxara. Horrela, kudeaketa publikoaren ondoriozko dirusarrerak eta gastuak gardenagoak izatea lortuko da.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa; hartara, foru legeko artikulua bakarrari idatzati bat gehituko zaio. Hona testua:

“3. Bigarren xedapen gehigarria aldatuko da. Hona testua:

Bigarrena. Sozietate publikoen obligazioak. Sozietate publikoek Erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote, hautatu edo izendatu ondoko hilabeteko epean, zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, batez ere foru lege honetako 2. artikulua ukitzen baditu, baita Foru Lege honetako 5.1 artikuluko b) letran adierazitako kontzeptuengatik esleitutako sari ekonomikoak ere.

Zioak: Proposatzen dugun aldaketaren bitartez, zehaztu egiten da sozietate publikoen obligazioak zein diren, eta bereziki aipatzen dira sozietate horietarako hautatu edo izendatzen ahal diren goi karguak. Hilabeteko epea ezartzen da —hautapena edo izendapena gertatzen denetik hasita— jakinarazpen horiek bidaltzeko, eta informazio ekonomikoa administrazio kontseiluetara joateagatik jasotako sarietara mugatzen da; izan ere, 19/1996 Foru Legeak ezartzen duen debeku bakarra (bi gehienez ere) sari horiei buruzkoa da.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa

Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, sozietate publikoek erregistroa kudeatzen duen organoari jakinaraziko diote zein lagun hautatu eta izendatzen dituzten haien zuzendaritza organoetarako, foru lege horretako 2. artikulua ukitzen baditu, baita jakinarazi ere 5.1 artikuluan adierazitako kontzeptuengatik esleitutako sari ekonomikoak.

Gauza bera dio Nafarroako Gobernuo eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi kargudunen jarduera eta interesen Erregistroaren jardunbidea arautzen duen urtarrilaren 7ko 2/1997 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak, eta hau gehitzen du: “hautapen eta izendapenen komunikazio hori egiteko hilabete izanen da, behin Foru Dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, hautapen eta izendapen horietan aldaketarik izanez gero horren berri eman behar dela alde batera utzi gabe.”

Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeak ezarritako zehapen araubideak, goi karguen arau-haustea ezartzean, ez duela zehapen berezirik ezartzen sozietate publikoek informazioa ematen ez duten kasuetarako.

Gure ustez, sozietate horiek zuzendaritza organoetarako hautatu eta izendatzen dituzten goi karguen jakinarazpena egiteak goi kargu horien bateraezintasun-araubidea dela-eta goi karguen erregistroak egiten duen kontrola bermatzen laguntzen du, eta horrenbestez, bidezko da azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritako zehapen araubidea aldatzea eta arau-hauste arintzat jotzea sozietate publikoek foru lege honetako bigarren xedapen gehigarrian ezarritako obligazioak ez betetzea. Horrezaz gain, beharrezkoa da goi karguen balizko arau-hausteei buruzko zenbait atal zehaztea.

Helburu hori bera du bigarren xedapen gehigarriaren aldaketak, non sozietate publiko horien jakinarazpenen epea eta edukia zehazten baita.

Zioak: Zioen azalpena aurkeztutako zuzenketei egokitzea.

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

2001-2004 urteetarako etxebizitza plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 25ean eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2002ko martxoaren 11ko Erabakiaren bidez, 2001-2004 urteetarako etxebizitza plana, bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat, ERABAKI DA:

1. 2001-2004 urteetarako etxebizitza plana tramitera onartzea.

2. Hari buruzko iritzia Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak ematen duela xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

F saila:
GALDERAK

Narbarten aziendarentzako pasabide bat eraikitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Narbarten aziendarentzako pasabide bat eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Azken urteotan, zure departamentuak zenbait obra egin ditu N-121-A errepidean, bideune desberdinetan.

Zozaia-Doneztebe bideunean, 3.ean alegia, 17+900 k.p.tik 24+148,62 k.p.ra bitartekoan, –Azpiroz y Saralegui, Padenasa, Cavosa AEBk adjudikaturik daukan horretan, zehazki Legasako lotunearen ondoan, Narbarteko udalerrian–, aurreikusirik dago pasabide kanadar bat eraikitzea, basa animaliak igarotzeko pasabide bat, alegia.

Hiru kontzejuetako (Oieregi, Legasa eta Narbarte) alkateek eta Bertizaranako Udalak behin baino gehiagotan jakinarazi diete Herrilan Departamentuko arduradunei beharrezkoa dela pasabi-

de hori zabaltzea, basa animaliak ez ezik abereak ere, hau da, behiak, behorrak, ardiak, igarotzeko, bai eta azienda hori gobernatzeko ohikoak diren nekazaritzako ibilgailuak ere.

Arrazoizkoagoa dirudi konponbide horrek, etorkizunean arriskuak saihesteko xedearekin batetik eta, bestetik, komunikazio bideen inguruko gure asmoa eskualdearen garapenari laguntzea baldin bada, eta ez beste traba bat gehitzea lehendik ere gogor samarrak diren baldintzei.

Horregatik guztiagatik aurkezten ditugu honako galdera hauek:

Lehendabizikoa. Aurreikusirik al du zure departamentuak pasabide kanadar bat egitea Narbarten, 20+700 k.p.ren ondoan?

Bigarrena. Iruditzen al zaizu ez dela beharrezkoa horren neurriak zabaltzea, abereak ere bertatik igaro daitezela?

Hirugarrena. Egin al du zure departamentuak jarduketa horrek izanen lukeen kostuari buruzko azterlanik?

Laugarrena. Zein da esku-hartze horren kostua?

Bosgarrena. Zure departamentuak hartuko al du bere gain animaliek errepide berritik igarotzean, beste sestra bateko pasabiderik ez izateagatik, eragin ditzaketen kalteen erantzukizun zibil subsidiarioa?

Seigarrena. Azken hilabeteotan ez dute tokiko agintariak azienda igarotzeko pasabide hori eraikitze eskaerarik aurkeztu?

Iruñean, 2002ko martxoaren 20an.

Foru parlamentaria: Jose M^a Aierdi Fernández de Barrena

Kontratuei buruzko Foru Legea betetzeari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak kontratuei buruzko Foru Legea betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko martxoaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean honako galdera hauek aurkeztu ditu, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako Gobernuak berriki hartu du zenbait ondasun eta zerbitzuren kontrataziorako sistema zentralizatuari atxikitze erabakia. Erabaki horren bitartez kontratazio hori Estatuko administrazioaren esku gelditu da.

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak kontratazio sistema horri atxikitzerakoan erabilitako irizpidea izan da eskuratzeko prozeduren kopurua murriztu eta beraz, aski bitarteko eta denbora aurreztea.

Baina kontratazioa zentralizatzeak zalantzak sortzen ditu Nafarroako enpresa guztientzat ber-

dintasun, objektibotasun, gardentasun eta lehia librearen printzipioak beteko direla bermatzearen inguruan. Bestalde, zalantzak sortzen dira, halaber, kontratua betetzeko prozesuan Nafarroako Gobernuaren autonomia bermatzeko moduaren inguruan, kontratu egilea Estatuko administrazioa izanzen baita. Azkenik, erosketak Madrilen zentralizaturik egotearen ondorio bat izanzen da Foru Komunitateak diru gutxiago bilduko duela balio erantsiaren zergaren kontzeptuan.

Horregatik guztiagatik gure talde parlamentarioak honako galdera hauek egiten ditu:

1. Nola bermatuko da kontratuei buruzko foru legea betetzen dela, berdintasun, objektibotasun, gardentasun eta lehia librearen printzipioei dagokionez, Nafarroako enpresa guztien kasuan, kontratazioaren arloan aginte publiko guztientzako lotesleak diren oinarritzko printzipioak izaki?

2. Nafarroako zenbat enpresa daude kontrataziorako sistema zentralizatu horretarako homologaturiko hornitzaileen artean?

3. Nola bermatuko da Nafarroako Gobernuaren autonomia kontratuak betetzeari dagokionez?

4. Zer eragin izanzen du Foru Komunitatearen diru bilketarako ahalmenean, produktuen balio erantsiari dagokionez?

Iruñean, 2002ko martxoaren 21ean.

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, Nafarroako Parlamenturako hiru fotokopiagailu adjudikatze-koa

Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 97.3 artikulua betez, adierazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko martxoaren 20an hartutako Erabakiaren bidez, honako kontratu hau adjudikatu duela:

- Kontratuaren xedea: hiru fotokopiagailu kontratatzea.
- Mota: prozedura irekia.
- Kontratuaren prezioa eta adjudikazio hartzailea:

1. lotea (2 fotokopiagailu tandem-ean): 71.520,44 euro (BEZ barne)

Adjudikazio hartzailea: NRG Group Spain, S.A. (Gestetner)

2. lotea (fotokopiagailu 1): 7.212 euro (BEZ barne).

Adjudikazio hartzailea: Ricoh España, S.A.

Iruñean, 2002ko martxoaren 25ean.

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	